

Eusko Ikaskuntzaren Komunikabide Sailaren Ikerketak

Hurrengo orrialdeotan irakur ditzakezuen testuak gure Komunikabide Saileko bazkideak burutzen ari diren ikerketen berri dira. Niri dagokit, oraingo honetan, bi ikerketa horien aurkezpena egitea. Eta pozik ere egiten dudala aitortu behar dut. Arrazoi batzuengatik: gure Sailak gizarteak duen eskari bati erantzutzen diolako. gizarteak aurrera egingo badu, ikerkuntza ezinbesteko lana delako. Ez beti oso lan eskertua, epe motzean behintzat; baina beti ere oso garrantzitsua.

Hain jakintza-arlo berria izanik, ezin hobeto deritzogu kazetariok ere ikerketak egiteari. Pozaren pozez eta harro-harro agurtu behar ditugu, beraz, bi hauek. Gainera, bi ikerketa hauek, bata askoren artean egina, bestea ikerle baten ekimenez burutua, are garrantzitsuagoak dira gure ustez, on-onak izateaz ezezik, euskaraz idatziak eta euskarari buruzkoak ere direlako. Eta, Euskal Herriko gure gizarte honetan, azken bolada honetan hain tirabira gogorrak eta latzak pairatzen ari den herri honetan, non suntsipena nagusitzen ari den, euskaldun onen zeregin konstruktiboak are gehiago txalotu behar ditugu.

Jotxo Larrañagak, Asier Arangurenak eta Miren Gabantxok osatutako taldearen lana, batetik, eta Sabin Oregirena, bestetik, elkarren osagarri dira, gainera. Fenomeno berdinari buruzko ikuspegi ezberdinak, alegia, eta horregatik are aberasgarriagoak. Fenomeno hori herri prentsa dugu, Euskal Herriko hainbat eta hainbat herritan sortu diren tokian tokiko aldizkariak, hain zuzen ere.

Taldearena Eusko ikaskuntzaren beraren beka bati esker burutzen ari da, eta hori ere poztekoa da, jakina. Gure jakintza-arlo xume hau bere lekua bilatzen ari den momentu honetan, elkarre sendo baten laguntza ezinbestekoa delako, eta kazetaritza inguruko gaiek gizarteak beti ematen ez dien prestigioa eskuratu behar duelako. Larrañaga, Aranguren eta Gabantxo kazetaritza profesionala utzi gabe ikerkuntzara buru belarri murgildutako pertsonak ditugu, kazetari berrien adibide eta eredu. Beren lana, oraindik erabat burutzeke dagoena, sei aldizkari hartu ditu oinarritzat, komunikazio prozesua aztertzeko. Horretarako, hiru dira ikuspuntuak: egilea, edukia eta hartzailea. Zailtasunak zailtasun, eta ikerketa osoaren zain, esan dezakegu ikerle gehienok haseran aurkitu ditugun eginbeharrekoak bete dituztela haiek: berezko metodo bat bilatu eta eratzearena, alegia. Edukia arakatzeko, batez ere, unitateak eta kategoriak asmatzea aurkikuntza azpimarratzekoa da. Hartzaileari buruzko partean ere, beste horrenbeste.

Sabin Oregiren ekarpena, bestalde, beste ekimen batetik dator: bere doktorego-tesitik, alegia. Arantzez beteriko bide horretatik igaro garenok ederki dakigu zer den hori ikerle barentzat: lan eskerga, alde batetik, dudaz osoturiko bidetik abiatu, eta lehen onespeneko inportantea lortzea. Zeregin hori bere gain hartze soilagatik txalogarria izango litzateke Sabinen ekintza; are gehiago, ondorioa hain ona bada. Burutu du dagoeneko Oregik bere tesia, eta aurkeztear dago; ziur aski, lerro hauek argitaratuta daudenerako, Sabin Oregi doktore izango dugu.

Sabin Oregiren lana ere herri komunikabideei buruz ari da. Irakur dezakuenek, gure alizkarian agertzen dena tesiaren zati bat, herri komunikabideen finantzaketa eta dirulaguntzei buruzkoa, hain zuzen. Datu ezin baliotsuagoak eskaintzen dizkigu Sabinekin. Aurrerantzean ere, dudarik gabe hain beharrezkotzat ditugun beste ikerketa batzuek oinarritzat hartuko dituzte bai Oregiren, bai taldearen lana.

Azkenik, erdaraz kasu honetan, José Ignacio Aranesen ikerketa bat eskaintzen dizuegu, komunikazio instituzionalari buruzkoa. Aranesen bide akademikoaren eta ikaertzailearen emaitza berria dugu, lehendik ere jorratu duen bideari ekarpena. Sakon eta zuzen aztertzen du gure bazkideak gai hau. Besterik ez, irakurle. Dasta itzazu testu hauek.

Javier Díaz Noci